

# 1- ISLAMA ETA AL ANDALUS

## 1. ISLAM: AGERPENA

### 1.1. MAHOMA, ISLAMAREN PROFETA

- **Islama Arabian** sortu zen, basamortuak hartua duen Ekialde Hurbileko penintsula batean. Bertako biztanleak:
  - Karabana-gidariak, abeltzain nomadak eta nekazariak ziren.
  - **Politeistak** ziren. **Meka** erlijio gune garrantzitsua zen; **Kaaba santutegian** basamortuko tribuen jainko guztiak biltzen ziren.
- **Mahoma** izan zen Islamaren sortzailea. Mekan jaio zen 570. urtean. Tradizioaren arabera, *Gabriel* goi-ingeruak iragarri zion **Alaren profeta** zela eta erlijio berria predikatu behar zuela.

### 1.2. HEGIRA

- Mahoma Meka hirian predikatzen hasi zen. Bere mezua ez zuten ongi hartu eta fede berriaren jarraitzaileek jazarpenak jasan zituzten.
- 622. urtean Mahomak Medinara ihes egin zuen. Data horri **hegira** deitzen zaio, eta musulmanen egutegiaren hasiera adierazten du.
- Mahomak Medinako biztanleak erlijio berrira bihurtzea lortu zuen eta, haien laguntzaz, 630. urtean Meka eraso eta menderatu zuen. Kaabako santutegiko idoloak suntsitu zituzten.
- Mahoma 632. urtean hil zen. Ordurako, Arabia osoa menderatua zuen, eta arabiar gehienak jadanik **musulmanak** ziren.

## 2. ISLAMA, MUSULMANEN ERLIJIOA

- **Korana** musulmanen liburu santua da, goi-agerkundera. Islamaren oinarriak:
  - Ala Jainko ahalguztidun bakarra dela sinestea, eta Mahoma haren profeta dela.
  - Egunean bost aldiz otoitz egitea, Mekara begira.
  - Mekarako erromesaldia gutxienez bizitzan behin.
  - Baraualdia Ramadan hilabetean.
  - Gaixo dauden pertsoneri eta behartsuei limosna ematea.
- Beste agindu batzuk: gerra santuaren bidez (yihad) beren erlijioa babestea eta zabaltzea, ezin dute ardoa edan eta txerri-haragia jan, etab...

### 3. ISLAMAREN HEDAPENA:

#### a) Etapak:

- Mahoma hil zenerako, Islama Arabia osoan hedatuta, ia erabat sendotuta.
- Lehenengo kalifen garaian musulmanek aurrera egin zuten: Afrikako iparraldea bereganatzen hasi, Pertsiar Inperioa konkistatu (Irak), Bizantzioko lurraldeak hartu...
- Omeiatarren dinastia: hiriburua Damaskon. Hedapena: Kartago menperatu (Tunisia), 711. urtean Gibraltargo itsasarte zeharkatu eta Iberiar penintsula ia osorik bereganatu...
- abbastarren dinastia: hiriburua Bagdaden. Batasun politikoa desegin; probintzia batzuek independentzia erlijiosoa lortu, adibidez Al Andalusek.

#### b) Arrazoiak:

- Tribu arabiarren indar militarra.
- Inguruko lurraldeen ahultasuna, elkarren arteko borroken ondorioz.
- Erlijio islamiarraren apaltasuna.
- Musulmanek menperatutako lurraldeetako biztanleekin zuten jokaera tolerantia (gurtzak eta legeak onartu).

#### c) Herri konkistatuak eta haien integrazioa:

- Herri konkistatuei beren erlijioa izatea uzten zitzairen. **Kristauak** eta **judutarrek** beren erkidegoak zuzentzeko aukera zuten, baina gobernadore musulmanari **zerga** bat ordaindu behar zioten.
- **Musulmanek abantaila sozialak eta ekonomikoak** zituzten; hori dela eta, lur konkistatuetako biztanle gehienak islamera bihurtu ziren.

### 4. ISLAMA IBERIAR PENINTSULAN: AL ANDALUS

#### 4.1. KONKISTA

- Penintsula inbaditu zuten **armada musulmanak** batez ere **berbereez** osatuak zeuden, baina **buruzagiak arabiarrek** ziren.
- **711n** penintsulan sartu eta **Bisigodoen erreinua** konkistatzeari ekin zioten. Bisigodoak elkarren arteko borroken ondorioz ahulduta zeuden eta ez ziren gauza izan musulmanei aurre egiteko. **718rako** ia penintsula osoa menderatu zuten.

- Noble eta apez hispaniar-bisigodo batzuk, jende gutxi batzuekin batera, **Asturias** aldean babestu ziren.
- Hispaniar-bisigodo gehienek ez zieten gogor egin iritsi berriei.
  - Nobleek konkistatzaileekin tratua egin zuten, lurrei eta botereari eustearen truke.
  - Nekazariak jaun berriak izan zituzten.

#### 4.2. DAMASKOREN MENDEKO EMIRERRIA

- Musulmanek probintzia bat antolatu zuten, Damaskoko Omeiatarren Kalifatzaren mendeko **Emirerria: Al Andalus**. Hiriburua **Kordoban** ezarri eta **bali** bat izendatu zuten (gobernadorea).
- Musulmanek Pirinioez iparraldera jarraitu zuten, baina **Poitiersko gudua** galdu eta behin betiko atzera egin behar izan zuten penintsulara.

#### 4.3. EMIRERRI INDEPENDENTEA

- VIII. mendearen erdian, Bagdadeko abbastarrek Damaskoko kalifak tronutik bota zituztenean, omeia familiaren azken kidea, **Abd ar Rahman I.a**, Al Andalusen finkatu zen.
- Abd ar Rahmanek bere burua **emir independente** egin zuen; Damaskorekiko batasun politikoa desegin zen, baina kalifaren gidaritza erlijiosoa onartzen zen.

#### 4.4. KORDOBAKO KALIFERRIA

- X. mendearen hasieran **Abd ar Rahman III.a** agintera iritsi zen. Gizarte talde guztiak agintepean sartu zituen. Erlijioaren aldetik independente egin eta bere burua Al Andaluseko sinestunen kalifa egin zuen. Horrela jaio zen **Kordobako Kaliferria**.
- Garai honetan Al Andalusek goia jo eta **egonkortasun handia** izan zuen:
  - Ekonomiaren garapena; itsas merkataritzak garrantzi handia.
  - **Almanzorrek** erreinu kristau hispaniarren hedapen asmoak geldiarazi zituen.

#### 4.5. TAIFA ERREINUAK

- XI. mendetik aurrera, Kaliferriaren batasuna hausten hasi zen. Al Andalus zatitu egin zen; lurralde zati haietako bakoitzari **taifa** esaten zaio. Garrantzitsuenak: Sevilla, Toledo, Zaragoza, Granada...

- Taifek oparotasun ekonomikoa izan zuten, baina ez ziren gauza izan armada kristauen aurrerapena geldiarazteko. XIII. menderako, kristauak Al Andaluseko ia lur guztiak konkistatu zituzten.

#### 4.6. GRANADAKO TAIFA ERREINUA

- Erreinu kristauak XIII. mendean egindako aurrerapenetik kanpo gelditu zen bakarra izan zen.
- **Lurralde zabala:** egungo Malaga, Almeria eta Granada probintziak, eta Cadizkoaren zati bat.
- Lurralde **aberatsa** zen; horri esker, Gaztelako errege-erreginei zerga izugarriak ordaintzeko modua zuen, eta horregatik iraun zuen.

### 5. GIZARTEA ETA EKONOMIA

#### 5.1. GIZARTEA

##### a) Elitea:

- **Kalifa:** agintari politiko eta erlijioso gorena.
- **Goi-funtzionario asko:** **bisirra, emirra, balia, kadia,** etab.
- **Beste batzuk:** lur-jabe handiak, goi-dignatario erlijiosoak eta zientzialariak.

##### b) Herri xehea: nekazariak eta behartsuak.

##### c) Esklaboak:

- **Gizonak:** armadan edo harenetako eunuko gisa.
- **Emakumeak:** etxeko lanak edo aberatsen harenetan parte hartu.

□ Bi sexuen artean alde nabarmenak: emakumea gizonaren menpe, harenen egon behar du eta aurpegia estalita; alde juridiko handiak...

#### 5.2. EKONOMIA

##### a) Merkataritzak garrantzi handia:

- **Bide garrantzitsuak** kontrolpean: Pertsiar golkotik Asia erdialdera, Mediterraneo, Nilo ibaia, etab.
- **Moneta** berdina: urrezko dinarra.
- **Produktu** nagusiak: luxuzkoak (zeta, urrea, esklaboak) eta autisau-lanak (tapizak, perfumeak).
- Merkataritza eta artisautza **gunek:** Damasko, Bagdad, Al Kairo, Alexandria.

b) **Nekazaritza:** ureztatua (arroza, frutak) eta lehorrekoa.

c) **Abeltzaintza:** nomada, lurralde erdilehorretan (ardiak eta gameluak).

## 6. KULTURA ETA ARTE ISLAMIKOAK

### 6.1. KULTURA ETA ZIENTZIA

- **Ekarpenik handiena:** beste zibilizazio batzuen kultur oinordetza gordetzea, garatzea eta hedatzea (Grezia, Bizantzio, Pertsia eta India).
- Lan filosofiko eta zientifiko ugari itzuli zituzten arabierara (Aristoteles, Ptolomeo, etab.).
- **Tradizio zientifiko handia:**
  - Unibertsitateak, liburutegiak, behatokiak, laborategiak etab. eraiki.
  - Medikuntzak garrantzi handia (Avicena).
  - Nabigazioak garapen handia.
  - Matematikan aldaketa nabarmenak: zifra hinduen (1etik 9ra) eta zeroaren erabilera; kalkulu matematikoan iraultza ekarri.
  - Algebra, geometria eta trigonometria ere garatu.
- **Literaturak garapen handia:** poesiak, ipuinak, etab. ("Mila eta bat gau" ipuin bilduma, ipuin herrikoiak).

### 6.2. ARTE MUSULMANA

#### a) Arkitektura:

- Eskasia kanpoaldean eta **oso apaindua barrualdean** (Koraneko bertsikuloak dituzten inskripzioak, irudi geometrikoak, etab.).
- **Elementuak:** kupula bizantziarra eta arte bisigodoari dagokion ferra-arkua hartu; zutabe eta pilare asko; etab.
- **Materialak:** adreilua, zura eta igeltsua.
- **Eraikuntza** bereizgarriena, **meskita** (Kordobakoa). Bestelako eraikinak: jauregiak, gotorlekuak (Alhambra), mausoleoak (Taj Mahal), etab.

b) **Eskulturak eta pinturak** garrantzi gutxi.

c) **Zeramika** arte-adierazpen nabarmenetakoa.